



Vitoria-Gasteiz
La Güerako Dairarekin
(Mendebaldeko Sahara) senidetu zeneko
XX. urteurrena



Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko La Güerako Daira hiri senide aitortu zuen Gasteizko Udalak, 1987an.

Orduko hartan saharar errefuxiatuek hamabi urte zeramatzen errefuxiatu, Aljeriako hegoaldean dauden Tindufeko kanpamenduetan, eta hori mendebaldeko Sahara, 1975ean, Espainiako kolonia izatetik legez kanpo okupatutako Maroko Erresumako lurralde izatera pasatu ondoren. Errefuxiatu kanpamendu bateko sektore batekiko senidetzeak "Saharako Herriarekiko maitasun eta senidetasun sentimendu handiena eta haren askatasunaren alde zein lurralde hartako bakearen alde egiten ari den ahalegin kolektiboarekiko elkartasuna adierazten zuen"

Hogei urte pasa dira, eta Saharako gatazkak oraindik ere bere horretan jarraitzen du, baina nazioarteko komunitateak, jada, ahaztu du. Saharako Herriaren erresistentzia eta duintasunaren hogei urte.

Denbora horretan guztian zehar, Arabako SEADeko Lagunen Elkartek, gasteiztar askoren laguntzarekin, ez du atsedetik hartu Saharako Herriari laguntzeko zein elkartasuna adierazteko ahaleginean. Gainera, familia gasteiztarrek errefuxiatuen kanpamenduetako haurrak hartzen ohi dituzte haien etxeetan, uda partean. Udalak, gasteiztarren sentimenduaren isla gisa, horien guztien elkartasun zeregina lagundu du.

Hogei urte hauetan, Saharako familiak gure hirira heldu dira baldintza hobeen bila, eta Marokok okupatutako lurraldeetako Saharako Herriarrek ezarri zaien isiltasunaren, bortizkeriaren eta zapalkuntzaren lauza era baketsuan apurtu dute.

Urteurren hori ospatzeko Gasteizko Udalak eta Arabako SEADeko Lagunen Elkartek kultura eta artisten topagunea antolatuta dute.

Antzinakoa eta aberatsa den Saharako Herriaren kultura zein haren musika, haren jaima eta hondarrarekin batera helduko dira basamortutik hiriko bihotzean instalatzera, eta gure musikarekin, baita askatasuna lortzeko burutzen ari den borroka luzearekiko elkartasun zein laguntzaren adierazpenarekin ere gurutzatuko dira.



egitaraua
Foru plaza

OSTIRALA, IRAILAK 28

11:00etatik aurrera

- Ikastetxeen bisitak:

- Ipuin kontalariak; Saharako istorioak
- Haurrentzako larrugintza lantegiak.

17:30etik aurrera

- Larrugintza lantegia. Saharako eskulangintza.
- Txotxongilo emanaldia. Sol y Tierra konpainiaren "Enanitos y Gigantes" izeneko lana.
- Ipuin kontalariak; Saharako istorioak

22:00etan

- Musika emanaldia: **Udal Folklore Akademia + MARIEM HASSAN**

LARUNBATA, IRAILAK 29

11:00etatik aurrera

- Henna lantegia. Saharako eskulangintza.
- Té lantegia. Saharako eskulangintza.
- Ipuin kontalariak; Saharako istorioak

17:30etik aurrera

- Henna lantegia. Saharako eskulangintza.
- Té lantegia. Saharako eskulangintza.
- Poesia errezitala eta mintzaldiak Saharako poeta taldea "Adiskidetasunaren belaunaldia", bertako poetekin batera.

22:00etan

- Musika emanaldia: **Aziza Brahim + KEPA JUNKERA**



Vitoria-Gasteiz, 2007ko irailaren 28 eta 29a
Foru plaza



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udalak



LAGUN ARO
LAGUNEN ELKARTEAK